

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA

##### **Gasteizko zarataren mapa estrategikoa onestea**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 9an egindako ohiko bilkuran:

“Lehenengoa. Behin betiko onespena ematea Gasteizko zarataren mapa estrategikoari (2017).

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn eta EHAAn argitaratzea, Zaratari buruzko 37/2003 Legean eta EAEko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 dekretuan ezarritakoarekin bat, eta erabakiari zabalpena ematea aplikagarri den araudiari jarraiki.

Hirugarrena. Erabaki honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen denetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara.

Gasteizko zarataren mapa estrategikoa udalaren web orrian eskura dezakete herritarrek [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org).

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 12an

*Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren administrazio burua*  
**EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ**